

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Amaña 2022/11/16

Saila	Laburpena	
Obrak	Bizilagun batek eskatu du Amañako igogailuko pasarela goratzeko, zeren eta gaur egun dagoen altueran etxebizitzaren barrualdea ikusten baita.	Kanpoko empresa bati azterketa eskatu zintzaion, balorazio estrukturala eta ekonomikoa egiteko, eta hori ikusita, ez jardutea erabaki zen. (Lan honen kopia interesdunari eman zitzaion).
Obrak	Bizilagun batek galdetu du ea zertan diren Amañako zine-antzokiaren tramiteak.	Azterketa baloratua egin da
Zerbitzuak	Eskoletako etxeetako bizilagun batek kexa adierazi du eskailera mekanikoak askotan matxuratzen direlako.	TKri jakinarazi ondoren, adierazi digute noizbehinkako akatsak direla, ez etengabeak.
Obrak	Batek honako salaketa hau egin du: obraren bat egiteko aparkalekuak kentzen direnean, ez da galera hori konpentsatzen beste aparkaleku berri batzuk jarrita.	Ziriako Agirreko goiko aldean aparkaleku berriak egiteko aukera aztertzen ari da Udala.
Udaltzaingoa	Bizilagun batek galdetu du ea garabiek, autobusek eta kamioiek aparkatu dezaketen bizitegi-guneetan.	Hiri Izaerako Bide Publikoetako Erabilerak, Trafikoa, Zirkulazioa eta Segurtasuna arautzen dituen Udal Ordenantzak 9.5.15. artikuluan jasotzen duenez, bide publikoetan ezingo dira 3.500 kg-tik gorako ibilgailuak aparkatu.
Zerbitzuak	Kexu da Wenceslao Orbea eta Legarre kaleak lotzen dituen igogailua zikina eta amaraunez josita dagoelako, eta pixa-usaina egoten delako.	Abisua pasatu zitzaion Mankomunitateari, eta jakinarazi digute eskaera kontuan hartu dutela eta ordutik aurrera hasi direla aldian-aldian garbitzen.
Udaltzaingoa	Auzokide batek proposatu du gune batzuetan aparkaleku-plazak zedarritu daitezela, bermatu ahal izateko plaza bat baino gehiago okupatu barik aparkatuko dela.	Arazo horri soluzioa ematea zaila da; izan ere, aparkalekuak zedarritzeak ez du bermatzea plaza bat baino gehiago ez okupatzea. Plaza bat baino gehiago okupatzen duen ibilgailu

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Amaña 2022/11/16

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Auzokide batek eskatu du gerizpe-puntu gehiago egotea Amañako pasealekuan.	bat atzematen denean, zaila da jakiten ez ote duen hala aparkatu aurretik zeuden ibilgailuak ere gaizki aparkatuta zeudelako. Aztertu egingo da Amaña ingurua, ikusteko ea non jar daitezkeen pergola gehiago; hala ere, esan behar da aurtengo aurrekontuetan ez dagoela jasota pergolak jartzea leku honetan.
Obrak	Bustindui 18 zenbakiko bizilagun batek kexa adierazi du kale horretan oso sarbide eskasa dutelako, espaloian dauden eskaileren ondorioz. Eskatzen du leku hori berrurbanizatzeko.	Urbanizazioaren lehen fasea 2024ko lehen hiruhilekoan hasia aurreikusi da.
Obrak	Batek eskatu du Tiburtzio Anitua kaleko sarbideak hobetzeko.	Igogailua jartzeko eskaera egin du komunitateak sarbidea hobetzeko.
Zerbitzuak	Bizilagun batek salatu du jarraitu egiten dutela Bustindui kaleko 1 eta 7 zenbakien arteko filtrazioek. Esaten duenez, ura irteten da hustubideetatik.	Tokia ikuskatu ondoren, ondorioztatu da arazoa zorrotzena dela eta jabeei dagokiela; beraz, haiek mantentzearen ardura jabeei dagokie. Jakinarazi zitzaizen auzokideei.
Hirigintza	Bustindui kaleko 1, 3, 5 eta 7 zenbakietako bizilagunek galdetu dute ea mantenduko diren aparkalekuak, komunitate-igogailuak (lizentziak Udalean eskatu dira) egin bitartean.	Bai, aparkalekuak mantenduko dira. Obra Sailak egindako poriketuan aparkaleku kopurua mantenduko da, vaina kokapen desberdin batean. Alde batetik beste pasatuz.
Udaltzaingoa	Bizilagun batek proposatu du Karlos Elgezua eta Ziriako Agirrerren artean dagoen kalezuloa libre lagatzeko, beti dagoelako ibilgailu bat aparkatuta bertan.	Kalezulo horretan kanpoko igogailu bat eraikitzen denean, aldatu egingo dira bertako aparkalekuak.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Amaña 2022/11/16

Saila	Laburpena	
Obrak	Batek eskatu du arrapala mekaniko bat egitea edo eskaileraren pendiza jaiste, Amaña 3 zenbakitik 11ra, irisgarritasun-arazo bat daukalako.	Dagoen malda eta kalean dagoen espaloi estua dela eta, irtenbidea ez da erraza eta, beraz, bidegarritasun-azterketa egingo da.
Zerbitzuak	Eskatu du garbitzeko edo ebakitzeko Amaña 3 eta 5 zenbakien ondoan dagoen lorategiko belarra.	Otsailean garbitu eta txukundu zen, eta harrezkero inguruko lorezaintza-lanetan sartu da; beraz, udaberrian, udan eta udazkenean hilean behin garbitzen da.
Zerbitzuak	Bizilagun batek salatu du Amaña 3-11 zenbakien ostean horma bat dagoela zikinkeriaz betea, zomorroak eta arrak erakartzen dituena.	Hainbat aldiz erretiratu zituen zomorroak izurriteen kontrolatzaileak.
Udaltzaingoa	Karlos Elgezuako bizilagun batek uste du ez zela beharrezkoa lau pibote jartzea iturri ondoan.	Piboteak jarri ziren iturriaren aldean dagoen plazatxoan aparkatzen duten ibilgailuak saihesteko.
Udaltzaingoa	Batek eskatu du piboteren bat jartzea saihebidetako sarbideko bihurtzeko, zeren han kotxeak aparkatzen dituzte, eta auto horiek ikusgarritasun kendu eta igarobidea eragozten dute.	Ez da beharrezkotzat jotzen pibote bat jartzea, galtzada okupatzen egongo litzatekeelako. Ikusten denean ibilgailuak gaizki aparkatuta daudela, salatu egiten dira.
Udaltzaingoa	Batek eskatu du ken daitezela Karlos Elegezuako kalezulo ondoan jarri diren bi piboteak. Esaten duenez, jarraitzen dute autoak aparkatzen eta ibilgailuen igarobidea eragozten.	Kalezulo horretan kanpoko igogailu bat eraikitzen denean, aldatu egingo dira bertako aparkalekuak.
Zerbitzuak	Bizilagun batek eskatu du erretiratzeko kalezuloaren 7 zenbaki pareko etxartean jausi zen harrizarra.	Erretiratu zen; izkina bat zen, non lur-jausi txiki bat egon zen. Konpondu egin zen arazoa, baina laster itxitura bat jarri behar da, beste harriren bat jausiko balitz, arazorik ez eragiteko. Itxitura eskatuta dago eta entregatzeko zain.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Amaña 2022/11/16

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Karlos Elgezuako kalezuloan dagoen lirdinga edo "berdiña" garbitzeko eskatu du.	Mankomunitateari jakinarazi zitzaion, eta esan ziguten 2022ko uztailan garbitu zela dagoeneko; hala ere, zerrendan gehituko da. Baina uste dute hidro berriekin sarriago garbitu litekeela.
Zerbitzuak	Bizilagun batek adierazi du Bustinduiria igotzen diren eskailera mekanikoak gelditu egoten direla askotan.	TKri jakinarazi ondoren, adierazi digute noizbehinkako akatsak direla, ez etengabeak.
Zerbitzuak	Eskatu du eskailera mekanikoak ez gelditzea gauzez; izan ere, STOP & GO sistemarekin ez du eragozpenik sortzen.	Ez litzateke arazo teknikorik egongo; erabakia politikoa da, ez teknikoa.
Zerbitzuak	Eskatu du kimatu daitezela Otaola Hiribideko eta El Corte Inglés inguruko arbolak.	Otaola hiribideko arbolak beti kimatzen dira udazken eta neguaren artean, horixe delako garairik egokiena lan hori egiteko. 2023. urtean, urtarrilean kimatu dira. Barrenenguakoak duela 4-5 urte landatu ziren eta ez dira kimatu behar.
Udaltzaingoa	Ziriago Agirre kaleko bizilagun batek eskatu du aldatzeko kale horretan dagoen STOP seinalea; adierazi duenez, ezabatuta dago-ia.	Aldatu da.
Zerbitzuak	Kexu da arbola bat dagoelako Ziriago Agirre 8 zenbakiaren ostean, zomorro asko erakartzen dituen.	Aurrekontuak eskatu dira endoterapia egiteko maiatza-ekaina bitartean. Iaz ez zen tratamendu hori egin eta arbola kimatu egin zen.
Obrak/ Udaltzaingoa	Batek eskatu du zebra-bide bat pintatzeko Ziriago Agirre kaleko 6 zenbakitik 8 zenbakira.	Badago zebra-bide goratu bat 20 metro baino gutxiago.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Amaña 2022/11/16

Saila	Laburpena	
Udaltzaingoa	Salatu du auto asko aparkatzen dituztela aurrezki-kutxaren aurrean.	Ikusten denean ibilgailuak espaloia-aren gainean aparkatuta daudela toki horretan, salatu egiten dira.
Alkatetza	Batek galdetu du ea noiz egongo diren eskuragarri Asola Igartzako garajeak.	Salgai daude.
Alkatetza	Bizilagun batek eskatu du dantza-saioak antolatzeko Torrekuako eraikinean egin behar den jubilatze-etxe berria.	Iradokizun hau kontuan harutko da eta jubilatze etxe berria martxan dagoenean planteatuko da ideia.
Zerbitzuak	Batek eskatu du loreak landatzeko Ziriako Agirre 10 zenbakiaren aurrean.	Lorategi horretan arazo bat dago: ez dago ureztatzerik eta ezin dira sasoiko loreak landatu. Hortentsiak eskatu behar dira maiatza eta ekaina bitartean landatzeko.
Zerbitzuak	Bizilagun batek eskatu du gune estaliak egiteko Berdintasunaren pasealekuko hainbat tokitan.	Aztertu egingo da Amaña ingurua, ikusteko ea non jar daitezkeen pergola gehiago; hala ere, esan behar da aurtengo aurrekontuetan ez dagoela jasota pergolak jartzea leku honetan.
Zerbitzuak	Karlos Elgezua 5. zenbakiko auzokide bat kexu da, 7. zenbakiaren ondoko barandak pintura altxatua duelako, eta, horrek zauriak eragiten dituelako eskuetan. Eskatu du, haren ordean, altzairu herdoilgaitzezko bat jartzeko.	Baranda lixatu eta pintatu zen, baina azkenean berri bat jarri zen altzairu herdoilgaitzezkoa. Baranda berria 2023ko otsailean jarri da.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Amaña 2022/11/16

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Batek eskatu du hobeto zaintzeko Karlos Elgezua 5 eta 7 zenbakiaren aurreko lorategia. Dioenez, belar gutxi dago eta heskai-zuhaixkak falta dira. Gainera, esan du 1 zenbakiaren aurrean mimosa bat dagoela, ustelduta.	Udal Lantaldeko lorezainekin hitz egin ondoren, jakinarazi digute negu honetan oso belar gutxi egon dela lorategi horretan eta, gainera, asunak hazi zirela. Arazo hori konpondu zen bere garaian, baina berriz ere gerta ez dadin, lorategia inguru horretako mantentze-programan sartu da; hortaz, udaberrian, udan eta udazkenean hilean behin pasatuko dira.
Alkatetza	Bizilagun batek salatu du ALFAk kea isurtzen duela eta usain txarra eragiten duela, batez ere, gauez.	Udala behin baino gehiagotan jarri da harremanetan ALFArekin. Enpresaren aurkako neurriak hartu dira. Hala eta guztiz, Ingurumen Sailak jarraipena egiten ari da.
Zerbitzuak	Auzotar batek eskatu du gehiago zaintzeko Amaña 12 zenbakiaren aurrean dagoen lorategia. Dioenez, asunez beterik dago.	Lorategi hori otsailean garbitu zen, eta harrezkero mantentze-lanen programan sartu da; beraz, udaberrian, udan eta udazkenean hilean behin garbituko da. Nolanahi ere, leku horretan autoak ikusten dira lorategiaren gainean aparkatuta (batzuk kotxe osoa, 4 gurpilak).
Alkatetza	Herritar batek kexa adierazi du auzoan aparkalekuak falta direlako.	Badakigu auzoan aparkatzeko zailtasunak daudela eta horregatik ari gara lanean. Hainbat proiektu ditugu (beste galdera batean proiektu bat aipatzen da).
Zerbitzuak	Auzokide batek esan du kale-garbitzaileak atera egiten dituela zabor-ontzietan botatzen diren zabor-poltsak eta kalean lagatzen dituela jaso barik.	Mankomunitateari pasatu diogu kexa, eta adierazi digute hitz egin dutela langilearekin. Teoriak dio agindua dutela paperontzietan lagatuko zabor-poltsak ez jasotzeko, baina ez haiek hartu eta lurrean lagatzeko.
Zerbitzuak	Batek Informazioa eskatu du ea goiko eskailera mekanikoak martxan dauden ala ez jakiteko sistemaren bat jartzearen inguruan.	Horretan dihardute. Une honetan semaforoaren eskaera jasotzeko zain gaude. Iritsi orduko jarriko dira eta amaitu egingo da seinaleztapen-sistema.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Amaña 2022/11/16

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Eskatu du produkturen bat ematea kutxatilen tapetan, jendeak ez labaintzeko.	Urtarrilean hasi ziren Amañako kutxatiletan tratamendu irristagaitza aplikatzen, eta maiatzean amaitu. Data horretan bukatutzat ematen da Amaña auzoko kutxatileri tratamendu irristagaitza emateko prozesua. Nolanahi ere, adierazi behar da halako lanak etengabe egiten direla urte osoan zehar herriko hainbat lekutan.
Udaltzaingoa	Batek eskatu du espaloietan piboteak jartzeko, inork ez dezan han aparkatu.	Ez dakigu zer lekuri buruz diharduen.
Udaltzaingoa	Wenceslao Orbeako bizilagun batek salatu du ez dela errespetatzen "Debekatuta dago aparkatzea" seinalea Amañako igoeran.	Ikusten denean gaizki aparkatuta dauden eta traba egiten duten ibilgailuak daudela, salatu egiten dira, eta, beharrezkoa bada, garabiarekin erretiratzen dira.
Udaltzaingoa	Kexu da Amañan etxebizitza okupatu dutenek zabor asko botatzen duelako kalera.	Dagoeneko ez dago okuparik Amaña 21 zenbakian.
Zerbitzuak	Eskatu du baranda bat jartzea Amañako igoeran dagoen bihurguneko berdegunea inguratuko duena, txakurrak sartzea eragozteko.	Kexa hau jarri da beste urte batzuetan ere, baina beti eman da ezezkoa espazio ireki bat delako.
Zerbitzuak	Eskatu du txukundu daitezela Amañako igoerako bihurgunea pasatuta dauden iturria eta parkea.	Iturria eta haren ingurua txukundu ziren bere garaian. Iturri horretan egindako azken lana 2023/03/28an egin zen, eta ikusita goiko orubea parking moduan egokitu zenetik iturburuak bere ubidea galdu zuela, eta ura beste leku batzuetatik irteten dela (horma), erabaki da iturria hornidura-sarera konektatzea arazoari konponbidea emateko.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Amaña 2022/11/16

Saila	Laburpena	
Udaltzaingoa	Kexu da ezen Urkorako igoeran, txabola batzuk daudela txakurrekin eta gau osoan zaunkaka aritzen direla.	Ez dakigu zer txabolari buruz ari den. Komeniko litzateke Udaltzaingoiari deitzea txakurrak zaunkaka ari direnean, hala egiaztatu, eta jabeak lokalizatu ahal izateko.
Zerbitzuak	Bizilagun batek eskatu du Amaña 1 eta 3 zenbakien aurrean dauden eskailerak garbitzeko. Dioenez, oso zikin daude, baita horma ere.	Mankomunitateari eman zitzaion abisua, eta adierazi dute garbitu zirela. Bestalde, hormen garbiketa Lantaldeak egingo du presiozko makinarekin.
Zerbitzuak	Eskatu du Amaña 7 eta 9 zenbakien arteko igogailua garbitzeko, bai eta igogailurako sarbide-arrapalaren azpian dagoen hutsartea ere.	Garbiketa egunero egiten da goizeko lehen orduan; hala ere, abisua pasatu zaio garbiketa horren arduradunari, jendearen kexen jakitun egon dadin eta kontuan har ditzan leku hori garbitzen duenean.
Udaltzaingoa	Salatu du pertsona askok beren ibilgailuak garbitzen dituztela Amañako garajeetako sarbideen aurrean.	Ikusten denean gaizki aparkatuta dauden eta traba egiten duten ibilgailuak daudela, salatu egiten dira, eta, beharrezkoa bada, garabiarekin erretiratzen dira. Ibilgailuren bat horrela topatuz gero, Udaltzaingoiari esan diezaiokete.
Udaltzaingoa	Pertsona batek kexa adierazi du Berdintasunaren pasealekuan jende asko bidegorritik ibiltzen delako.	Gune hori oinezkoek eta txirrindulariek partekatu behar dute, eta bi aldeek errespetuz jokatu behar dute.
Obrak	Bizilagun batek eskatu du Karlos Elgezua eta Amaña arteko bidea asfaltatzeko.	Balorazio teknikoa eta aurrekontu-balorazioa egin dugu.
Zerbitzuak	Eskatu du garbitu daitezela San Andres Egoitzatik jaisten diren eskailerak. Dioenez, lirdingaz edo "berdilñez" beterik daude.	Mankomunitateari pasatu zaio abisua, toki hau desugertzeko makinarekin pasatzeko lekuen zerrendan sartzeko.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Amaña 2022/11/16

Saila	Laburpena	
Udaltzaingoa	Karlos Elgezua 8 zenbakiko auzokide batek eskatu du marra ez-jarraitu bat pintatzeko saihesbideko sarbidean, auzo horretako bizilagunak saihesbidera zuzenean sartu ahal izateko, buelta osoa eman beharrik izan gabe.	Gai hori Trafiko Batzordean jorratu ondoren, erabaki zen ez egitea, arriskua zekarrelako.
Zerbitzuak	Kexu da dorreko taberna aurrean dagoen hondakin organikoaren edukiontziazen tapa gaizki irekitzen delako.	Mankomunitateari pasatu zitzaion abisua, edukiontziazen tapa konpon zezaten. Jakinarazi digute 2023/02/07an konpondu zirela.
Obrak	Eskatu du Amañako frontoiaren goialdea estaltzeko, ez dadin urik sartu euria egiten duen bakoitzean.	Aztertu egin ze, eta frontoiaren egitura ikusita, ezin izan zern pantailarik jarri euria ez sartzeko. Sareak jarri ziren pilotak metalezko egituran trebatuta gera ez zitezen.
Udaltzaingoa	Bizilagun batek salatu du ezen Amañako dorreen aurreko aparkalekuan ibilgailu batzuek hilabeteak daramatzatela aparkatuta.	Hiri Izaerako Bide Publikoetako Erabilerak, Trafikoa, Zirkulazioa eta Segurtasuna arautzen dituen Udal Ordenantzak 9. 5.13 artikuluan debekatu egiten du leku berean hilabete baino gehiagoz jarraian aparkatzea. Detektatzen denean ibilgailu bat hala dagoela, ibilgailu abandonatuen tramiteari ekiten zaio. Auzokideren batek detektatzen badu ibilgailuren bat luzaroan dagoela aparkatuta mugitu gabe, Udaltzaingoari esan diezaioke.
Zerbitzuak	Bizilagun batek adierazi du Torrekuako anbulatorio zaharreko eraikinaren ondoan dagoen haurrentzako jolas-parkea zikin egoten dela astebururo.	Abisua pasatu zitzaion Mankomunitateari; adierazi digute parkea astelehenetik igandera bitartean garbitzen dutela; hala ere, baieztatzen digute oso zikina egoten dela. Mankomunitatetik proposatzen dute Kontzientziazio eta zibismo kanpaina bat egiteko.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Amaña 2022/11/16

Saila Laburpena

Udaltzaingoa

Salatu du eskola aurrean dauden etxebizitzaren garajeen irteera arriskutsua dela, ez delako ondo ikusten nor datorren. Eskatu du ispilu bat jartzea.

Garajeen kasuan, erabiltzaileek baimena eskatu behar dute ispilua jartzeko. Hura jartzea baimenduz gero, eskatzaileen kontura izango da.